

EUSKALTEGIEN TXOKOA 30. ZENBAKIA

Hernaniko Udal Euskaltegia



Egileak:

1. Udal euskaltegiko A2 mailako taldeak

Nolako hernaniarra zara?

2. Udal euskaltegiko B1 mailako taldea

Txakurrek ere bere espazioa eta askatasuna behar dute

3. Udal euskaltegiko B2 mailako taldeak

Euskaltegitik zinemara

1.

1.

2.

3.

3.

Nolako hernaniarra zara?

Ba al dakizu...

1. Zenbat biztanle dituen Hernanik?

- a) 21.546.
- b) 20.438.
- c) 15.810.

2. Zein auzo ez dagoen Hernanin?

- a) Martindegi.
- b) Ergobia.
- c) Osiñaga.

3. Zein mendetako den Beroiz Enea?

- a) XVII. mendekoa.
- b) XVI. mendekoa.
- c) XVIII. mendekoa.

4. Hernanik garai batean zenbat sarrera-ate izan zituen?

- a) Hiru.
- b) Bi.
- c) Bost.

5. Zer izan zen Gabriel Zelaia?

- a) Dantzaria.
- b) Idazlea eta olerkaria.
- c) Kirolaria.

6. Hernani Club Errubi Elkarteko jubentilek zenbat aldiz irabazi duten Espainiako Txapelketa Nagusia?

- a) Behin.
- b) Hirutan.
- c) Bitan.

7. Zer diren edo nola esaten dieten hernaniarrei?

- a) Babazorroak.
- b) Joxemaritarrak.
- c) Txori gaiztoak urrezko kaiolan.

8. Noiz ireki zituen ateak lehen aldiz Hernaniko Udal Euskaltegiak?

- 1980an.
- 1991n.
- 1985ean.

9. Atzietako kaleko Gingko Biloba zuhaitza zenbat metro luze den?

- a) 18,30m.
- b) 10,20m.
- c) 17,00m.

10. Zenbat tren geltoki dauden Hernanin?

- a) Ez dago geltokirik.
- b) Bat dago.
- c) Bi daude.

11. Zein ibai pasatzen den Hernanitik?

- a) Urola.
- b) Urumea.
- c) Bidasoa.

12. Zein urtetan sortu zen Hernaniko Kiroldegia?

- a) 1977an.
- b) 1980an.
- c) 1983an.

13. Hernaniko mugalari bat Comète Sarearen laguntzailea izan zen Bigarren Mundu Gerran. Zein izan zen?

- a) Luis Blas Zulueta.
- b) Florentino Goikoetxea.
- c) Juan de Urbietak.

14. Zein dantza den Hernanikoa?

- a) Ezpata dantza.
- b) Arin-arina.
- c) Azeri edo Maskuri Dantza.

15. Santa Barbarako ermita zertarako erabiltzen zen garai batean?

- a) Irrintziak botatzeko.
- b) Ekaitza eta trumoiak zetoze jakinarazteko.
- c) Hiletak egiteko.

16. Txirrita non jaio zen?

- a) Ereñotzuko Latze-Zar baserrian.
- b) Jauregiko Latze-Zar baserrian.
- c) Pagoagako Latze-Zar baserrian.

17. Nork sortu zuen Hernaniko Lanbide Eskola?

- a) Jose María Arizmendiarieta apaizak.
- b) Empar Pinedak.
- c) Karmelo Labakak.

Erantzun zuzenak:

1/b, 2/b, 3/c, 4/c, 5/b, 6/c (2001ean eta 2002an), 7/c, 8/b, 9/a, 10/8c, 11/b, 12/c, 13/b, 14/c, 15/b, 16/a, 17c

Baremazioa:

- 16-17. Hernaniar peto-petoa zara eta ikaragarri maite duzu herria.
- 10-15. Ez zara oso hernaniarra. Ez duzu askorik maite herria.
- 00-09. Hernanin lo baino ez duzu egiten. Bizi zaitez Hernanin, zoragarria da eta.

Egileak:

A2 maila/ Iluntzeko taldea.

Elizalde Cerda, Emely Gallego Gonzalez, Marta Garate Amenabarro, Leire O'mullony Fernandez, Miguel Salazar Gil, Rodolfo Villena Huerta, Krupskaya Navarro Oya, Angel Peucelle Rubio, Carla Gomez Perales, Santiago

Irakaslea:

Arrieta Juaristi, Izaskun

Txakurrek ere beren espazioa eta askatasuna behar dute

Gero eta hernaniar gehiago dabil txakurrarekin. Beraz, udalerrian elkarbizitzarako arauak bilatu behar ditugu.

Hauxe dio animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Hernaniko Udal Ordenantzaren 24. artikulua:

ANIMALIAK LEKU PUBLIKOETAN. Hiriko bide eta leku publikoetan eta eraikin kolektiboetako guztien erabilerarako zatietan, txakurrak kontrolpean eta uhal batez loturik eduki behar dira. Uhalak egokia izan behar du animalia erabilerarako. Salbuespen gisa, arriskutsua izan daitekeen animaliazat sailkatuta ez daudenak, erositzeagatik aurrekari erregistraturik ez dutenak, ondoren zehazten diren parke eta eremuetan ordutegi batetik aurrera, libre ibili ahal izango dira:

Parke edo eremua: 1.- Garcia Goldaraz. 2.- Atzieta. 3.- Aristizabal. 4.- Lizeaga. 5.- Iturmendi. 6.- Karobieta. 7.- Urbieta.

Ordutegia: 19:00-08:30

Hernaniko Udal Euskaltegi-ko zenbait ikasleri galdetu diegu ea zer pentsatzen duten artikuluari buruz, eta hauexek dira haien erantzunak:

Nire ustez, txakurrak ez dira derrigorrez lotuta eta muturrekoarekin eraman behar, bakarrik hozka egiten dutenak, gaizki hezita daudenak eta jendea molestatzen ari direnean.

Oso ondo iruditzen zait jartzea toki batzuk txakurrak libre ibiltzeko, baina, nire ustez, ordutegia kendu behar dute, eta utzi egin beharko lukete edozein ordutan. Parke gehiago ere jarri beharko lituzkete eta egokiagoak txakurrentzako; adibidez, parke itxiak.

Bukatzeko, argi daukat legez txakur arraza arriskutsutzat hartzen direnei utzi behar dietela parkean libre ibiltzen, salbuespenik gabe, eskubidea baitute beste txakurrek bezala aske ibiltzeko.

Ainara

Uste dut txakurrak hirian beti lotuta joan behar dutela, jende asko dagoelako, eta ados nago muturrekoarekin, zakur arriskutsuak direlako eta, nire ustez, ez daude hezita.

Badakigu txakurrek kirola egin behar dutela, horretarako libre ibili behar dute; baina, kontuz, parke horietan umeak jolasten dira eta gurasoak eta aiton-amonak ibiltzen dira. Horregatik, txakurrentzat ordutegi berezia izan behar da. Hori dela eta, Udal Ordenantzaren ordutegia ona dela iruditzen zait.

Bukatzeko, txakurren jabeek legea bete behar dute eta betetzen ez badute, udaltzainek isunak jarri beharko lituzkete.

Maite



Lilo libre parkean.

Nik uste dut zakurrek lotuta joan behar dutela kalean, baina ez muturrekoarekin. Jabeek hezi egin behar dituzte, eta kitto.

Udal ordenantza zorrotzgia da, ordutegia oso urria delako txakurrak aske atera ahal izateko.

Niri iruditzen zait udalak zakurrak libre ibiltzeko eremuak zabaldu beharko lituzkeela arratsaldean, baina baita goizean ere, zakurrek ariketa fisikoa egin behar baitute lasai egoteko.

Kris

«Jabeek hezi egin behar dituzte, eta kitto»

Ni Hernaniko Udal Ordenantzaren 24. artikuluekin ez nago erabat ados.

Nire ustez, txakurrak kalean lotuta joan behar dute, baina muturrekoarekin ez. Beste gauza bat da txakur arriskutsua eta matxinoa izatea; hori, bai, lotuta eta muturrekoarekin beti.

Baina pentsatu behar dugu jende askori ez zaizkiola txakurrak gustatzen. Horregatik, nik uste dut parkea ez dela toki ona txakurra ibiltzeko, jende eta ume asko ibiltzen direlako. Nik pentsatzen dut Hernaniko Udalak beste gune batzuk jarri behar dituela herri inguruan txakurrak ibiltzeko.

Niri txakurrak gustatzen zaizkit, oso esanekoak dira eta.

Joxe

Txakur batean jabea naiz eta nire iritzia azaldu nahi dut. Argi daukat txakurrek ez dutela muturrekoarekin ibili behar kalean. Lotu behar duela uste badu jabeak, ba, lotu. Denok dakigu zein den gure txakurraren portaera.

Hernaniko udal Ordenantzak esaten duena ez zait iruditzen bidezkoa denik. Nik uste dut gune gehiago egon behar direla txakurrarekin ibiltzeko, eta, horrela, txakurren jabeak lasaiago ibiliko ginateke. Ordutegiarekin ere ez nago ados, uste dut txakurrek gozatu behar dutela, jolastu... eta lotuta daudenean ez dute disfrutatzen.

Txaro

«Nik uste dut gune gehiago egon behar direla txakurrarekin ibiltzeko, eta, horrela, txakurren jabeak lasaiago ibiliko ginateke»

Animaliak herrian, bai, lotuta eraman behar dira, eta muturrekoarekin, animalia agresiboak. Animaliek hezita egon behar dute, baina batzuk agresiboak badira, ezin dira etxetik atera.

Hernaniko Udalak esaten duena ondo iruditzen zait, baina txakurrak libre ibiltzeko ordutegia gutxi iruditzen zait. Goizeko ordutegia zabalduko nuke eguerdiko 12:00ak arte.

Nerea

Hirietan txakurrek eta pertsonen elkarrekin bizi behar dutenez, beharrezkoak dira horretarako oinarritzako arau batzuk jartzea.

Txakurra dutenek jakin behar dute ez dakitela beti txakurrak zer egin dezakeen.

Nik oso arau zorrotzak jarri nituzke txakurrentzat pertsonen partekatutako espazioetan. Ondo hezita egon arren, uhalarekin eta muturrekoarekin joan beharko lukete beti.

Bestalde, uste dut leku gutxi daudela txakurrak "askatasunez" gozatzeko eta, gainera, mugatuak dituzte, eta hori ez dut ulertzen; zergatik ez 24 orduz libre ibiltzeko aukera ordenantzak aipatzen dituen gune eta parkeetan?

Txuss

Euskaltegitik zinemara

Euskaltegian ikusi dugun 'Amama' filmaren iruzkinak idatzi ditugu, bata goizeko B2 taldeak, eta bestea arratsaldekoak, zuekin konpartitzeko.

IRUZKINAK

B2 maila, goiza

'Baserriko kateak'

Asier Altunaren *Amama* filma 2015ean estreinatu zen. Euskal Herriko baserri batean kokatuta dago eta gaur egungo istorio bat kontatzen du. Baserriko ohiturak ematen ari diren aldaketak agertzen dira film honetan, sinbolismoz beteta.

Gurasoak, amama eta hiru seme-alaba baserrian bizi dira. Gurasoek bertan lan egiten dute, aurreko belaunaldiek egin duten bezala. Beren bizia baserrian hasi eta bukatzen da. Seme-alabek, ordea, ez dute baserrian jarraitu nahi; bakoitzak bere bidea egin nahi du. Aitak ezin du hori ulertu, eta, horregatik, gatazka sortzen da. Horrez gain, film honek baditu azpizgai batzuk: baserrian gizonezkoek eta emakumezkoek dituzten rola, seme-alaba bakoitzari jaiotzen den momentutik ezartzen zaiona...

Amparo Badiola, Kandido Uranga eta Iraia Elias aktoreek interpretatzen dituzte amama, aitaren eta alabaren paperak. Amparo Badiolak, nahiz eta bere lehenengo filma izan, ikaragarri ondo egiten du lan. Kandido Uranga zineman, telebistan eta antzerkian lan asko egin da, eskarmentu handiko aktorea da, eta hori nabarmen geratzen da film honetan. Iraia Eliasek antzerkian egin du lan eta *Amama* filmean egindako paper zoragarriari esker, Goya sarietarako izendatu zuten.

Filmeko argazki-zuzendaria Javier Agirre Erauso da. Hemen irudiek izugarriko garrantzia dute, hitzak ordezkatzeko dituelako. Naturaren edertasuna eta, aldi berean, gogortasuna ederki islatzen ditu. Musika, berri, Mursegok (Maite Arroitauregi) sortu du, eta aipatzekoa da filmean paper labur bat egiten duela.

Filmaren istorioa sakona, hurbila eta berezia da, sentimenduak sorrarazten dituena. Baserriko arauak ezagutu nahi izanez gero, ezinbestean ikusi beharreko filma.

B2 maila, arratsaldea

'AMAMA'

2015eko filma da *Amama*, eta Euskal Herriko gaur egungo baserri bateko istorioa kontatzen du. Bertan, belaunaldien arteko gatazka azaltzen da. Euskaraz ari den zuzendariak Asier Altuna du izena eta Gipuzkoako baserri batean jaio zen. Beraz, gertutik ezagutzen du mundu hori, eta omenaldi txiki bat egin nahi izan dio. Sari askotarako izendatu zuten filma, Goya eta Tallin sarietarako, besteak beste. 2015ean Donostiako Zinemaldian Irizar saria lortu zuen.

Film honek belaunaldien arteko gatazka islatzen du. Gurasoek mendeetako ohiturekin jarraitzen dute, hau da, baserriko eta baserrirako bizi dira. Seme-alabek, ordea, ez dute horrela bizitzen jarraitu nahi, baizik eta bere bizimodua egin nahi dute. Aitak ez du egoera hori onartzen; ondorioz, gatazka sortzen da.

Aktore dezentek parte hartzen dute *Amama* filmean, baina paper garrantzitsuenak Kandido Urangak (Zumaia, 1955), Iraia Eliasek (Zarautz, 1980) eta Amparo Badiolak (Bizkaia, 1931) interpretatzen dituzte. Kandido Urangak (aita) aktore lan ugari egin ditu zineman eta telebistan; *Goenkale* telesailari esker lortu zuen arrakasta, hain zuzen ere. Beste film ospetsu batzuetan ere lan egin du, adibidez, *Agur Etxebeste* eta *Errementari* filmetan. Iraia Elias (alaba) paper horri esker, Goya sarietarako hautagai izendatu zuten 2015ean. Amparo Badiolak (amama) ospe handia lortu du film honi esker, aktore berria izanagatik, sekulako lana egin baitu.

Irudiek garrantzi handia dute film honetan. Horiekin komunikatzea lortzen du eta ikusleak guztiz harrapatzen ditu. Irudiak eta begiradak hain dira indartsuak, ezen aita-alaben arteko gatazka kontatzea lortzen baitute. Bestalde, film honetan agertzen den paisaia paregabea Euskal Herriko hainbat herritan eta menditan grabatuta daude: Errezil, Azpeitia, Artikutza, Aldatz, Donostia, Biarritz, Hondarribiko aireportua...


Nahiz eta belaunaldien arteko gatazka ikus daitekeen film

honetan, amaiera zoriontsua du. Presta zaitez film hau dastatzeko, Euskal Herriko antzinako bizimodua bikain transmititzen digute eta. Ikustea merezi du.

Egileak:

Goizeko taldea: Marijo Astudillo, Erramun Bereziartua, Laura De Miguel, Sara Garcia, M^a Carmen Hernandez, Ana Avila, Yolanda Mitxelena eta Rakel Rodriguez

Arratsaldeko taldea: M^a Jose Centeno, Karla Hernandez, Iker Olalla, Amelia Rubio, Ainhoa Piriz eta Aitor Sukuntza.



FITXA TEKNIKOA

Filmaren izena: Amama (2015)

Jatorria: Euskal Herria

Jatorrizko hizkuntza: euskara

Genero artistikoa: film dramatiko

Iraupena: 103 minutu

Zuzendaria: Asier Altuna

Gidoigileak: Asier Altuna, Telmo Esnal eta Michel Gaztanbide

Antzezleak:

- Amparo Badiola (Bizkaia, 1932?): *amama*
- Kandido Uranga (Zumaia, 1955): *Tomas*
- Klara Badiola (Donostia, 1954): *Ixabel*
- Iraia Elias (Zarautz, 1980): *Amaia*
- Manu Uranga (Zumaia, 1980): *Gaizka*
- Ander Lipus (Markina-Xemein, 1971): *Xabi*
- Nagore Aranburu (Azpeitia, 1976): *Sara*

Bestelako lanak: Mursego (musikagilea) eta Javier Agirre Erauso (argazki-zuzendaria)



Zuzendaria: Asier Altuna

Bergaran jaio zen 1969an.

Zinema zuzendaria izateaz gain, gidoigilea ere bada. Hainbat film labur egin ditu: besteak beste, *Txotx* (1997), *Bertsolari* (2011) eta *Soroa* (2014)

Bi film luze grabatu ditu: *Aupa Etxebeste!* eta *Amama*.

Filmeko pertsonaia nagusia amama da (Amparo Badiola). Asier Altunak taberna batean ezagutu zuen eta emakume polita eta begirada gardenekoa iruditu zitzaion. Berarengana hurbildu eta galdetu zion ea film batean parte hartu nahiko lukeen. Amparo kamera baten aurrean inoiz jarri gabea bazen ere, onartu egin zuen. Azkenean, elkarrekin ondo konpondu zirenez, lan bikaina egin zuten.